

GAZTE NAIZ

Sisifo, gure anai hura

«...eta gauraren ondoren, etzen egun berririk argitu».

Sisifo gizon bat zen, eta, rebeldia bat zela medio, Jupiter'ek arkaitz aske ikaragarri bat mendi gallur batera igotzeko kastigua eman zion. Sisifo saiatzen zen; bere gorputz guziarekin bultzaka jasotzen zuen arkaitza an goraino, baño jaso bezin laister, harri borobill hura berritxo goitik behera erortzen zitzaion, eta horrela, etengabeko alperlan desesperagarri batean, Sisifo berritxo bultzaka asi bearreko zorian arkitzen zen. Egunero saldatzen zuen Sisifo'k goizean goiz eguzkiaren lehen argia. Egunero igesi goite zitzaien irudimena, ilusioaren beso, esperantzazko bideetan barrera. Udaberri guztiak ekartzen zitoen, almdroen lehen loreekin batera, poz berri eta desesperatu bat, eta illargiaren edertasuna zuen kontsolagarri bakarra udazkeneko gau epel erogarri haletan.

Eta gero, berriz, zeruari aurrez-aurre begiratu, eta harriari bultzaka asten zen.

Baia, hala ere, Sisifo etzen guztiz zorritzarreko, bere kastiguaren arrazoia bai bazekien. Sisifo hura rebeldia bat zen; rebeldiako pekatua komitetu zuen, mundu honetan kometi liteken pekatuak ederrena. Eta horregatik bere begietan orgullo txinpart bat ageri zen beti, eta horregatik bere atsedean bakoitzean desafio bat igotzen zen lurretik zerura.

Orrela, etzen berea destino bat, ondoren bat baizik; eta bere paktuaren jabe, etzen bere bizitza guztiz tristetza izan, eta badira zoriontsu izandu zela diotenak ere.

Historiak ez du Sisifo'k nola bukatu zuen esaten, eta etzaitz ajolik ere. Neri ajola zaidana, Sisifo haren ondorengorik izandu zuen ala ez jakitea da. Eta nere ingurura begi guztiz ikaratuakin begiratzen badet, batetz aitortu bearrean arkitzen naiz, Sisifo'k ondorengoak izan zituela, millaka ondorengo, milloika ondorengo badituela, eta bere ondorengo oiek Sisifo bera baño ere milla bider zorigaiztokoago dirala, euren kastigua kunplitzera kondenatuak izanik, pekatuaren eta epailariaren berririk izan ez dutelako.

Poetak dion bezela, "illobi baten gañean zankolaka jaiolak", gerorik, gabe, argirik gabe, esperantzik gabe, jendatza ikaragarriak ikusten ditut egunero kaleetan zear, begiak illan, bihotza estu, bildura lagun, lur mixerale honen gañean arrastaka, fantasmagoria inpermutar baten antzera.

Ez du egunak argirik ekartzen illuntasun horretara, eta gorputza neke, ahoa legor, goizean goizik asten dute Sisifo berri hoiak eguneroko marxta, gaberano irixteko indarra nundik aterako duten jakin gabe, agian egunen batean, gutxienez espero dezateken momentuan, euren bizitzaren sekretuarekin topa ditezkelako esperantza izpi batekin. Esperantza, legorrekore lore, horrenbeste ekaitzek autsi, ez duten lorea...

Eta bakoitzak bere harria bultzatzen du maldan gora. Bakoitzak bere bizitza bultzatzen du, harri ikaragarria, dignidade eta pakezko mendia horren gainerajoko alegiaren.

Baiñan harri hori beti goitik behera dator. Esperantza bat edo maitasun bat munduan austen diran momentuan, gizonak goseak iltzen diran momentuan, maitateak elkar trauiznatzan duten momentuan, indarrak beartsu zapal-tzen duen momentuan, gezurrak egia eta zitalkeriak justizia engaiatzen dituzten momentuan, momentu ortantz bertan, gure harria goitik behera dator, eta dignidadea ta bakea urratzen dira.

(6'garren orrialdean bukaera)

NESKA MUTILLAK



—«Ik ez dakik ezer, ez duk gauz auetaz ezer ulertzen esan oi didate. Neska batekin, asmo onakin ateratzeko beintzat, ezagutu beharra zegok, konprenitze beharra eta hori ez duk pare bat egun ibilliaz lortzen».

Ez, egia, ez da lan makala persona bat konprenitzea batez ere emakumea ba da, eta lortzeko nahi ta nahiez asko hitzein beharra... Horrera noa.

Nik ere, Françoise Hardy'k bezela, kideko neska mutillak eskuak eskuetan dituztela ikusten ditut... Bai orixe, eta baita zelan alegintzen diren batek besten barrena ezagutzen. Hori bai hitzik esan gabe ahoaren bidez beintzat, nik uste eskuen izkuntzaren bidez («alfabeto dactologico'ren bidez») egiten dutela.

Nere ustez ezkongai gazteak geiegi ibiltzen dire alkarrekin eta alperrik gainera. Asko ta asko goizetik batera joaten dire lantokietara, fabrikatara edo eskolatarara eta irretzean denbo falta zaie batak eta bestek parkeetako aukietan esertzeko... Horrela harituz bai batak eta bestek beren giroko proiektak auztu egiten dituzte. Mutillak lehen kultura edo kiroltazaz zaletasunik bazuen ere, orain senargaitza geiegi sentitzeagatik alde batera uzten ditut.

Auetako bateri lanen bat eskeintzen milla aitazki sortu oi dituzte.

—«Barkatu bainan arrapatu egin nindutek, andreagaia zeukat, orain etzkat astirik. Ezin diat».

Eskeintza, beste neska batzuekin irretzeko izan balitz bezela. Lanak, andregaiarekin ikusterik baluke bezela.

Geienetan gauz auen erro oso emakumeen edeial falta izan oi da. Personalidade falta. Ez dute pentzatsen, senargia beoiekin ez danean gauz onik egiten ari litekeanik.

Berekoikeri hori izaten da mutillaren azkatasuna eta lanerako goguarrekin bukatzen duena.

Tamala benetan gazte batzuen nahiak, beste gazte batzuen egoismoagatik galtzea.

Gazte baten bihotza ez dut uste kajoi bat danik maitasun bat sartzeko beste bat atera beharren arkitzeko.

Bein esan nuen ezkontza ezitzaiala finalidadea iruditzen konplementua baizik... Osatzea, konprenitzea, batak besteari laguntzea, bakoitzaren lana, bakoitzak lortutakoa eskuak indarrez elduaz banatu dezan, horrela beren ideia laruntz doan bidea zabaldu dezan.

Eta are biziago gure Euskal Herrian, mendietako gorritzak eta ehiztarien eskopeta-hotsak Aralar'ko eta Gorbea'ko ixiltasunean ezkontzen diranean.

Barne-egoera huntan irakurri dut Francois Mauriac'en "Destins" (Zori, edo Patu, edo Zorte) nobela. Ez da gaurko kontua; Mauriac biziki maite dut aspaldidanik; eta liburu huntan ere maitatu dut.


Zergatik? Ez dakit xuxen. Bihotza duelako, nunbait. Gizon baten abotsa entzun ditekela, beharbada. Edo-ta ere: olerkari aparte batek idazten duelako bederen, segurki.

Hutsunean nere begirada galdurik liburua bukatu dudanean, bestetan ere nabaitu izan dudana nabaitu dut: irakurri egin ditekela Mauriac'en nobelak. Irakurteak on egiten du. Are gehiago, bestetik: hasi ezkerreko eskutik hel-tzen baitu irakurlea, eta mundu bizi eta olerkitsu baten barrera eramaten baitu. Jende xehearen zorritzar izkurtua ezagutarazten digu, lehego maitasun haren oihartzun apala, zenbait sentimenduren kaxkarkeria, Gironde-eskualdeko nekazari aberatsen bizimodua.

Ilauaren segailtasuna eta bihotzaren dardara sentiaraztea: horra hor Mauriac'en eragina. Zein da, ordea, olerkariaren eta nobelariaren eginkizun nagusia?

"Figaro Littéraire"n astero ematen dituen goetoak ez ditu zenbait maite. Ez neuk ere, maiz aski, literaturatik at ari dalarik batik-batik.

Baiña Nobel-Saria jaso zuena, ez da haundi eta sarigarri "L'Express" eta "Figaro Littéraire"etan politika-



Idazkitza

Donostiko Z-tar Joxek idatzitako eskutitza irakurri ondoren eta egiten duzuna "galdera" ez, baizik zure iritzi desberdina azaltzea denez, nere adiskide Saizarbitoriak ez zuan ezer erantzutekorik.

Nik ere ordea ba dut beste iritzi ta ematera noa: Zergatik mintzen zaituzte gazte batzuen egite guztiak? Ez baida "nere", "ni" eta "naiz" erabil-tzeak mintzen zaituztena, "nork" erabiltzen duan baizik.

Idazle batek, idaztia zear, barrenean daramana ematen du, ta nere lagun onek au ez gordetzeko gizontasunez jabetua dago.

o o o

Iruñako O-tar I. Pozgarriak dira guretzat zure itz onak. Ainbat eta geiago "Historia triste bat" txalotu zenualako.

Antzerkia egitea erabaki genduanen, Xalbador'ek bertan ziona oso osorik onartzen genduelako izan zan, gero pixka bat bildurta giñan gauz bat eta bestea irakurriak, ondoren ordea, ez dala alperri-kakoa izan gure lana ikusi degu.

Zure eskeintzari buruz, zuzenki erantzungo dituz.

o o o

Oso ondo iruditu zaigu gazte lagun batek bialitako idatzia. Berak ere idatzi nai luke orri onetan eta orrela egiten badu oso ondo artuatuak izango dirala agertu bearra dauka. Aituta-tako onariak ez dira txarrak "Gu ez gaituk noski santuak, baiñan esan bearreko gauz batzuek ba dizkiagu, eta esan egingo dizkiagu, kalteak kalte eta aserreak aserre. Egiaren garaik ez dituk sekulan pake garaik. "Ez naiz pakea ekartzera etorri, guda baizik". Eta geroak juzga dezala.

Bejondeikela motel eta aurrera!

Bestela haritu ezkerre, ezkongaietan lanerako oitara galtze ba da, nekez da bein ezkunduz gero, berritxo ritmoa hartzea. Kezka geiago izaten dire eta aitazkiak jartzea errezago noski. Horrela azkenian gizona betirako galdua dago, bere ideial bakarra dirua irabaztea izango da.

Neska, andregai denboran duan berekoikeria izan di-teke senarrak gizon bezela duan personalidadea galtzea.

Mutil gazteak, andregai behar du, languntzaleak, ez ideialaren frenatzaileak.

SAIZARBITORIA

ASTETIK ASTERA



FRANÇOIS MAURIAE

Ez dakit barne-giro hau udazkenarekin batera heldu ote dan, ala bestekin datoridan; baiñan urtero, Urrilla alde hustekin, bakardadea nagusia eta irakurteko egarria nigan pibtu, eta nere errazte agusitu ere egiten dirala aitortu behar dut. Lizardi'k idaztearen "erdimila" azaldu zuen behin oso egokiro; baiña ba dago ere. nik uste, berak ez alpatuagatik ere, udazkeneko "olerki-min" hau.

albistari tematsu danean; "Thérèse Desqueyroux" eta "L'Agneau"ren idazle danean baizik.

Eta "nobela-berri" deritzan horri buruz berriki irakurritako esakun egoki bat bururatu zait: "Robbes Grillet ez da nobelari bat, nobela-ijeneru bat baizik". Esakun hunen egia naarmen agertu zait.

Mauriac'en mundua, hau bai, burges-maillakoa da, ez da zalantzarik. Alde huntatik ba du, nola uka, aspaldiko kutsu zerbait, zahar kutsua aleia. Mundu hori itzaila dala iruditzen zaigu, edo itzailtekaton bederen. Ba da, hein batean, Paul Bourget'en ezpalekoa eta mende-koia ere.

Baiña Mauriac'en mundua, halarik ere, bihotza duten pertsonak osatzen dute: ez aingeruk eta munstrok soilik. Sorterriko bere amodioa, giza-amodio zaigu. Bere kristantutasuna zalantzarik elikatua, eta ez segurkerria finkatua. "Teknikeria"rik gabe, hitz-tema zozorik gabe, herri-azkurarik gabe, oparo darizkio bere lumatik olerkitasuna eta egia. Ez da gutxi!

Ekintza-hildoaren sena, olerkariaren etorria, olerki-kutsuaren ikutua eta fintasunaren dohainia nobelari batak dituenen, idazleen maillan ezar ditek.

Nik hau egiten dut Mauriac'ekin, Eta gure nobelariak hein batean bederen eredutzat proposatzen.

Noiz izango ote dugu guk Mauriac eskuldun bat? Agian laister!

GOIENETXE